

## **17. OIHANEKO LANA**

Ohatzeak. Ohatzeen istorioa izaten zen gogorra. Han ez zen izaten ainarra, makil mehe batzuk paratzen ziren, egur batzuk kruz... gurutzatuta, eta gero ainarra gainean. Eta gero espaldero bat, bizkar larrua edo baldin bazen zerbait ere, hori paratu eta harekin. Han egiten zen lo. Manta batzuk onak baldin baziren, eta tira! Bizia gogorra izaten zen, e?

### **Eta garbitzeko eta... nola moldatzen zineten?**

Garbitzeko? Aste guztian ez genuen, ja ere garbitu gabe. Beltz-beltzak eginak denak ikatz hautsarekin. Bai, asteak osoak hauts guztiarekin. Eta ez zuen molestatzen, ikatzaren haustak ez zuen molestaten. Ez, ez, edozein hautsak pikatzen du igual, baina ikatzaren hautsak ez zuen pik... molestatzen batere.

### **Eta noiz garbitzen zineten? Edo non? Edo nola?**

Pues e... han izaten baitziren beti errekek, nonahi, han edo hemen erreka zintzur bat izaten zen, beti ura izaten zen mendian, orain baino gehiago, orain agortu dira anitz, lehortu dira izugarri mendiko iturriak denak.

### **Eta zer, joan eta uretatik pasatu eta...?**

Bai, horixe! Fresko-freskoa eta tira berriz! Hurrengo egunean martxa bera.

Hara eramaten zuen, rantxeroak eramaten zuen hara, jatekoa. Lanean ari ginen lekura.

### **Eta zer bazkal...?**

Bue, jeneralean aparte ez ginen izaten, baina...

### **Zer bazkaltzen zen eta nola?**

Han babak. Eta, paratu erretilua, zortzi-hamar lagunendako erretilu bat, eta, guk kendu bidenabar, gainetik heldu zen ura dena erretiluan. Hori... hori zen gauza polita! Alde bat hotza eta bertze aldea, berriz, babak urarekin.

### **Zapelatik behera edo...?**

Hombre! Zapelatik igual anitz aldiz!

### **Eta bazenuten zuen koilara?**

Bai, bakoitzak bere... bere koilara eramaten zuen.

### **Eta zer zenuten, gainean edo... eramaten zuen...?**

Ez, egiten genuen zahatoari lotu koilara hura eta hura ez genuen galtzen.

### **Eta galduz gero?**

Galduz gero pues bertze bat bilatu behar non edo han. Edo zurezkoa egin, anitz aldiz.

Jaian go... ja ordu bata arte lanean aritzen zen, jaian ere. Ez zen orain bezala ortziralea arratsaldea ailegatu da eta ja akabo, lanak akabatu dira. Baina orduan, igandean eguerdira arte hantxe aritzen zen lanean. Han eta nonahi gainera, hemengo enpresetan edozeinetan, e?

### **Librea bakarra igande arratsaldea?**

Igande arratsaldea.

### **Eta zer egiten zenuten igande arratsaldetan?**

Pues orduan... batzuek arropa garbitu, bertze batzuek... edo eskutitzen bat edo bertze eskribitu, batek andregia baldin bazuen, edo... beti denetarik izaten zen jendea. Eta familiako jendea ere izaten zen, umeak zituztenak, eta denetarik bazen.

### **Eta igual jaten zenuten zerbait ere bereziago, ez?**

Eta, gero, gero jaia arratsaldeetarako ematen zen edo umerria zela, edo ardia, ari... ardiaren haragia edo, zerbait ematen zen eta gero menu eder bat prestatu gu ederrean hantxe egoten ginen.

### **Eta hori nagusiak pagatzen zuen, umerria?**

Ez, ez, ez. Hori norberak pagatu behar genuen. Norberak pagatzen genuen.

### **Eta jaisten zineten ondoko herrietara?**

Inor ere mugitzen, handik. Guk bagenuen, Senariako mendian aritu ginen denboran, bi ordu bide. Orduan ez zen ez pistarik, ez e... mando bidea, mendi zera horietan denetan ez zen mando bidea bertzerik. Dena bueltaka-bueltaka-bueltaka, mendi horietan. Bi ordu bagenituen ari ginen lekutik herrira. Hori zen Napoleongo mendian? Gaur Napoleongo mendira joaten dira autoak eta guztia, baina denbora hartan ez zen deus ere. Eta haren azpian, han aritzen ginen.